

ORAIN ETA HEMEN: KOMISALDEGIA BERGARARA

ARKO

Arrasate

P R E S S

2001.eko
otsailaren 2a
527. zenb.



Santa Ageda

Erlijioa eta tradizioa

Otsailaren 4an irtengo dira taldeak eskean




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

urteurrenak

Kiroldegi berria

■ 50. zenb.

(1990-01-27)

ARRASATE PRESSEK aste horretako zenbakian aurkeztu zuen Iturripen egin gura zen proiektua. Urte horretako aurrekontuak osoko bilkuran aurkeztu barik zeuden, baina Iturripeko kiroldegia egiteko 232 milioiko aurrekontua zegoen aurrez ikusita. Lanak 1991ko udaberriara-ko amaiztea espero zuen udalak.

Roneoren inbertsioa

■ 51. zenb.

(1990-02-09)



Roneok Logroño-ko Madurama enpresa erosi zuen 400 milioitan bulego altzarien sektorean aritzeko.

Horrez gain, Kataideko industrialdean 1.650 milioi inbertitu zituen eta bigarren epe batean 2.000 milioitara igoko dela aurrez ikusi zen. Guztira 29.000 metro koadro eraikiko ziren Kataiden.

Santa Ageda eskean

■ 51. zenb.

(1990-02-09)



Karitas-endako dirua batu zuten urte horretan Santa Ageda eskean.

la 2.000 ikasle

■ 51. zenb.

(1990-02-09)

Eskola Politeknikoak 1989-90 ikasturteko matrikulazio datuak eman zituen argitara aste horretan. Batxilergoan, guztira, 515 ikasle matrikulatu ziren, aurreko urtean baino 12 gutxiago, hain zuzen ere. Heziketa Teknikoan 267 ikasle matrikulatu ziren eta Ingeniaritzan, 970.

Guztira, hortaz, 1.852 ikasle sartu ziren Eskola Politeknikoan, aurreko urtean baino 151 gehiago.

besteek esana



Zenbat dira, batez beste, euskaraz argitaratzen ditugun lanak? Gutxi, oso gutxi. Zergatik? Ikerketa lanetarako egileek aukeratzeko duten hizkuntza, gehienbat, espainiera delako. Zelan irauli joera hori? Hortxe galdera... baina ez dakit erantzun aproposik ote dudan.

Egileari ezin dakiok hizkuntza inposatu. Askatasunean ekoiztu behar du eta aurreneko eskubidea hizkuntzari dagokiona da. Eta euskarak, zientzialarien artean XX. mendearen hondarretan duen presentzia txikiarengatik, gorantz egin dezakeen arren, lor genezakeen abiadura ez litzateke datozen berrogeita hamar urteetan EUSKAL GIZAKI OSOA erdiesteko euskarak beharko lukeena: lehenago bidean hila geratuko litzaiguke, elikadura egokirik ezarengatik.

JM Velez de Mendizabal

Euskonews Media

(2001-01-19)



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publikatzailea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddal Trubueolo. **Asteburuetako berriemakalariak:** Lorea Aguinano. **Banaketako arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddal Trubueolo.

Argazkia: Manu Mujika, Aiturri, Beterri-Aitzondoko aldizkaria.



Arrasateko Udaleran laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiaran laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren errepasoa 6
- Orain eta hemen 7/9
- Txutxumutxuak 10/13
- Auzoz auzo 13
- Asteko gaia **Belatokia eta errausketa-labea Mondragoen 14/16**
- Zaldibar areto futbolak 18/19

- Kirolak jokoan 20/21
- Eskola-kirola 22
- Kulturaren txokoa 23/24
- Uhinetan barrena 25
- Foto zaharra 26



ZERBITZUAK

Eritzeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
ostiralera 08:00etatik 17:00etara
Larunbatelatan 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron
	(euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera	Igandea
eta larunbata	12:00 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)	

igerilekuak, itxita

Otsailaren 5etik 12ra igerilekuak itxita egongo dira, garbiketa egiteko. Medikua aginduz igeri egin behar dutenak joan daitezela.

Bergarara, ziurtagiria egitera, eta Aretxabaleta igerilekuak erabili ahal izango dituzte.

euskal presoen alde

Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko, manifestazioa egingo da Donostian otsailaren 3an. Autobusak antolatu dira. Garibaitik irtengo dira, 15:30ean. Izen-emaite Irati tabernan egin beharko duzue.

Musika taldeei deia

Gazte Ekimena-k herriko musika taldeen ekintza bat antolatu nahi du euskal presoak Euskal Herriratzeko. Interesa dutenak joan daitezela zapatuan gaztetxera, 19:00etan.

udal haur eskola

Udal Haur Eskolarako aurrematikuzazio epea otsailaren 5ean zabalduko da, 16a arte. 14:30etik 18:30era joan beharko

zarete Umezaintzara, San Andres 8-ra edo San Josepe auzora, edo bestela, 943 77 20 25 telefonora deitu.

mendiko medikuntza

Otsailaren 5ean hasiko da Besaidek antolatutako mendiko medikuntza ikastaroa. Egun horretan mendiko istripuen prebentzioaz berba egingo du Ramon Garate medikuak, eta

hilaren 7an lehen laguntzez jardungo du Jon Armentia medikuak. Monterronen izango dira biak, 19:00etan.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 2

- Korkuera, Musakola

Zapatua, 3

- Irizar, Erguin

Domeka, 4

- Amezua, Santa Marina

Astelehena, 5

- Zabala, Zarugalde

Martitzena, 6

- Ruiz, Maalako Errabala

Eguaztena, 7

- Morales, San Andres

Eguena, 8

- Azkoaga, Ferrerías

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58

Badakizu zer bedeinkatzen duten San Blas egunean?

Zapatuan San Blas ospatuko da antzuolan, Bergaran, Aretxabaletan eta Elgetan



Ibon Diez
(11 urte)
Ikaslea

Pastel edo gaileta antzeko batzuk.



Maier Regos
(11 urte)
Ikaslea

San Blas opila, baina ez dakit zertarako.




Juan Gabriel Caceres
(36 urte)
Langilea

Animaliak edo? San Blas opila bedeinkatzen dela bada-
kit, baina horrez gain... Behin,
San Blas egunean bedeinka-
tutako soka izan nuen!



Trini Lopez
(73 urte)
Erretiratua

Jakiak: gailetak, gozokiak,
opilak...



Gorka Goenaga
(28 urte)
Langilea

Badakit ohitura dela Eiba-
rren, gure aita Eibarkoa dela-
ko, baina ez dakit zer bedeinkatzen duten.



Maria Angeles Gonzalez
(50 urte)
Etxekoandrea

Eramaten den guztia.
Lagun batek espagetiak eta
makarroiak bedeinkatzen ditu.
Alabari zorzea ematen ei dio.



Migel Angel Vigar
(21 urte)
Langilea

San Blas bera, ez? Ez dakit.



David Reina
(20 urte)
Langilea

Ezagun egiten zait, baina
ez dakit zer bedeinkatzen
duten.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08



- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

USTEAK USTE

Gero arte

Nere ardurapian kaleratu giñuan lehenengo zenbakixa 1999ko azkenengo Arrasate Press izan zan. Ordutik hona, beste 49 zenbakittan aritu naiz ahal nebana egitten, zuei astero herriko kontuen berri emuteko. Eta aitortzen dotsuet hizketan egitteko arazorik ez daukadan arren, neria ez dan herri baten ibiltzia kosta egin jatela, batez be, zeini zer galdetu asmau behar izan dotenian.

Baiña, gogua eukiz gero, danai aurre egitten jako bai, eta holaxe izan da.

Baiña, aillegau jat beste erabaki bat hartzeko ordua. Mondragoera aldi baterako etorri nitzan, eta hiru urte egin dittut hemen: Santa-masak, Sanjuanak eta san danak pasau dittut hemen. Nehikua, ezta?

Eta ixa-ixa, "gure, itxi eta beste hainbat mondragoekera" ikasi dittut. Eta geroz eta gehixago, gainera. Horregaittik, eta berandu baiño lehen, (bestela ahaztuko dittut nahi, laga eta bestelakuak), mondragoetarren aldizkarixa lagako dot.

Eskerrak emongo dotsuet nerekin euki dozuen pazientziagaittik, eta beste bat arte!

Marijo Deogracias

astea bi hitzetan

■ Atentatu gaitzespena

Zenbait udal langile eta herritar udaletxe aurrean elkartu ziren egubakoitz eguerdian, Ramon Diaz sukaldariaren hilketara gaitzesteko. Gauza bera egin zuten arratsaldean beste hainbat herritarrek ere, Bakea Orain taldearen deialdia jarraituz. Azken horiek Lau Kalen elkartu ziren.

■ Ikasleek, jai

Santo Tomas Aquino eguna zela-eta, egubakoitzean ikas-tetxeetako ikasgelak hutsik egon ziren. Santo Tomasek eskolastikaren oinarriak ezarri zituen, eta, horrexegatik, bera da eskolen santua.

■ Giza zientzien kontra

Ikasle Abertzaleek deituta, zenbait ikasle Seber Altube plazan elkartu ziren egubakoitzean, Espainiako gobernuak Gabonetan onartutako

giza zientzien dekretuaren-gatik protesta egiteko. IAREN ustez, dekretu hori Madrildik datorren beste eraso bat da. Ez ei du euskal izaera garrantzen eta espainiarren kultura inposatzeko erabiliko da.

Hori guztia salatzeko eta, horrekin batera, euskal curriculum aldarrikatzeke egin zen mobilizazioa.

■ Mondragoe Frantzian

La Liberation egunkari frantsesak ETAREN gaineko erreportajea plazaratu zuen egubakoitzean. Erreportajea inkesta baten zegoen oinarrituta, hain justu, bost mondragoetarri egindako inkestan. Euskal Herriko egoera politikoaren inguruan herritar hauek duten iritzia batzez gain, Mondragoeren gaineko aipamenak ere agertzen dira artikuluan. Besteak beste, abertzale ugari dagoen

herri baten jendea zelari bizi den galdegin zieten inkestak. Azken baten, nolabaiteko lekukotasun horren bidez, atentatuak, manifestazioak, jendearen isiltasuna zelari bizi duten jakin gura izan du egunkari frantsesak.

■ Batzar Orokorra

San Felipe Apostol kofradiak urteroko Batzar Orokorra egin zuen domekan Amaia Antzokian. Bazkide dezentte joan zen hara. Kofradiak, gaur egun, 11.931 bazkide ditu eta domekako batzarrean jakinarazi zuten, beste 500 izango ditu hemendik aurrera.

Horrez gain, elkarteak izan dituen diru gastu eta sarreraren berri eman zen, eta gero, 2001. urterako aurrez ikusten den aurrekontua azaldu zieten bazkideei. Aho batez onartu zuten bazkideek.



■ Q saria

Fagor Garagartzako egosketa taldeak Q saria jaso zuen egubakoitzean. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal fundazio-ko ordezkariak eman zioten saria, kooperatibaren egin zuten ekitaldi berezian. 500 bat lagun elkartu ziren, eta horietatik, 30ek zilarrezko oroigarria jaso zuten.

Sari banaketaren ondoren, Martin Berasategik prestatutako pintxoak jan zituzten.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Ertzaintzaren etxea, itxita

Mondragoeko polizia etxea duela bi bat aste inguru itxi zuten. Barne Saila berregituraketa egiten dabil EAeko ertzain etxeetan, eta gure bailarari dagokionez, erabaki du ez ditugula bi komisaria behar. Bakarrarekin nahikoa ei da eta Aste Santurako Bergarako polizia etxe berria zabalduko dutenez, hura izango da bailaran egongo den bakarra.



Aste Santu inguruan irekiko da Bergarako komisaldegia.

ZERBITZU BERBERAK

Baina, horrek ez du esan nahi Mondragoen zerbitzu gutxiago izango dugunik. Barne Saileko bozeramaile Juan Ramon Ruizek adierazi digunez, "patruila kopuru bera izango

da herrian eta salaketaren bat edo antzekorik egin behar izanez gero, hori ere Mondragoeko polizia etxean egin beharko da"; hortaz, herritarrendako arreta zerbitzua izango da,

eta, herriari begira, behintzat, ez dugu inolako aldatarik sumatuko.

Oñatiko polizia etxea ere pasa den urtean itxi zen, plan honi jarraituz.

Gizarte Segurantzak ordainduko du

Gaixorik dagoen Vanessa Vallejok eta familiak albiste pozgarria jasoz zuten pasa den martitzenean. Gizarte Segurantzak jakinarazi zien, hemendik aurrera, Vanessa gaztea Donostiara joan ahal izango dela, kantzerrari aurre egiteko behar duen tratamendua jasotzeko. Horrek esan nahi du ez duela tratamendua bere poltsikotik ordaindu beharko, Gizarte Segurantzak bere gain hartuko du-eta tratamenduaren kostua.

ESKER ONA

Hortaz, familiak egindako laguntza eskaera bertan behera geratzen dela jakinarazi du Vanessa Vallejoren sendiak. Hori bai, jasotako laguntza bihotz-bihotzez eskertu du: "Lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Eskerrik beroenak, asko lagundu digute eta".

Laguntza eskaerekin batera, otsailean egin behar zuten jaialdia ere bertan behera geratu da. Vanessa Vallejo datoren hilaren hasiera aldean hasiko da Donostiara joaten.

Familiak jakinarazi digunez, orain arte batutako diru gehiena dagoeneko Vanessa-ren tratamenduan gastatu dute. Eta sobratu den apurra gorde egingo dute, gerora begira jaso beharreko bestelako tratamenduak ordaintzeko.

Lastertasuna kontrolatzen

Herri barruan dabilzan automobilen lastertasuna murrizteko, bandak ipini ditu udalak herriko zenbait lekutan. Olatte kalean jarritakoaz gain, San Frantzisko Xabier ikastolaren pareko errepedean eta Maalako biribiletik ertzainen etxera arteko errepede zatian ipini dituzte; ikastolaren parean, umeak ibiltzen direlako; eta biribiletik aurrera dagoen bidean, zuzen-zuzena izanda, automobilerik lastertasun handiz doazelako.

Oraingoz, udalak ez du besterik ipiniko.

Egutegi bitxia

LEZE - TXIKI ELKARTEA

2001

ERREALZALEAK

PEÑA TXERRIHANKA

GARAGARTZA - ARRASATE

PEÑA TXERRIHANKA

OTSAILA

	1	2	3	4
5	6	7	8	9
10	11	12	13	14
15	16	17	18	19
20	21	22	23	24
25	26	27	28	

LEZE - TXIKI ELKARTEA - GARAGARTZA

Garagartzako Txerrihanka taldeak egutegi berezia aterra du 2001. urterako. Urtean zehar auzoan egingo diren ekitaldien berri emateaz

gain, auzoko eta auzokideen argazki bana argitaratu dute hil bakoitzean. Koloretzua eta umoretzua da garagartzarren egutegia.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)

Tel.: 943 79 79 65

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 08 07

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Alde Zaharra ixteko piboteak prest

Mondragoen estreinaldi berezi baten lekuko izan gara aste honetan. Alde Zaharrera autoak ez sartzeko ipini berri dituzten piboteen funtzionamendua frogatu eta ondo dabiltzala ikusi genuen.

Horrelako hiru ipini ditu udalak Mondragoen. Bata, San Frantzisko kalearen sarrean; bestea, Arbolapetan, eta hirugarrena, Biterin.

Zirkuitu pneumatikodunak dira, eta horiekin automobilen sarrera mugatu nahi dute, Alde Zaharra oinezkoendako uzteko.

Biteri kalea ixtea da udalaren asmoa, eta San Frantzisko Xabier eta Arbolapeta goizez zabalik uztea. Hortaz, zamalanak egiteko, San Frantzisko kaletik sartu eta Arbolapetatik irtengo dira ibilgailuak, 08:00etatik 13:00ak arte. Horretarako, programatzaile baten bidez ezarriko da piboteen ordutegia; hau da,



Zamalanak San Frantziskotik sartu eta Arbolapetatik irtenda egingo dira.

noiz jaitsi eta noiz igo programatu ahal izango da.

Horrez gain, Alde Zaharrean garajea dutenek ere sarbidea izango dute. Urruneko aginte tresna batekin jaitsi eta igoko dituzte piboteak.

BI MILIOI BAKOITZAK

Baina, ez da hori bitxikeria bakarra. Bitxikeriarik handie-

na prezioa da: bi milioi pezeta balio du bakoitzak. Oso instalazio zaila ei dute, eta horrek egiten ditu hain garesti. Kontuak kontu, udalak sei milioi pezeta gastatu behar izan du pibote horiek jartzeko.

Edozelan ere, oraindik ez dira piboteak erabiltzen hasi, ez dituztelako urruneko aginte tresnak auzotarren artean

banatu. Hori egitean, behin betiko aldatuko da Alde Zaharra: automobil gutxiago eta lasaitasun handiagoa sumatuko dugu.

IBAI-ARTE KEZKATUTA

Bestalde, Mondragoeko dendarien elkarte, Ibai Arte, kezkatuta dago Alde Zaharra oinezkoendako izateak Alde Zaharreko dendariei ekarriko dien kaltearekin. Automobil sarrera debekatzeak bezeroen gutxitzea ekarriko duela uste dute. Mertxe Trojaolak, Ibai Arteko kideak, Arrasate Irratiari adierazi dienez, "hasteko, udalak ez du gurekin ezer adostu; bestetik, ados gaude ibilgailuak ezin direla gau eta egun gora eta behera ibili, eta ezin direla ate-aurre guztietara joan. Baina, beldur gara, Alde Zaharra oinezkoendako eginez gero, jendea ez den joango beste leku batzuetara erosketak egitera".

Zinegotzi berria



Burokrazia kontuak konpondutakoan hasiko da lanean Juan Jose

Saenz, EHko zinegotzi berria. Baina, berri-berria ez da lan horretan, bi legegintzaldi eginak ditu eta. Orain, berriro

dator, indarberrituta, urtebeteko 'atsedenaldiaren' ondoren. Juan Jose izango da sei urte inguruz zinegotzi izan den Juan Luis Arexolaleibaren ordezkoa EHko taldean. Baina, oraindik kredentzialak falta zaizkio; hortaz, ez zaio lanik egokitu oraindik, baina betidanik ibili da Zerbitzu eta Auzo sailetan; hortaz, litekeena da berriro ere horretan lan egitea.

Jasangarritasuna aztergai

Ingurumenarekin lotuta Mondragoen egin diren azterketen emaitzen berri emango da datozen martitzen eta eguaztenean. Horrekin batera, Mondragoeko egoera zein den jakinaraziko da, ingurumenari dagokionez.

Hori guztia azaltzeko, hitzaldiak antolatu dituzte Mondragoeko Udalak eta ingurune ahokularitzak, Mon-


dragoeko azterlanaren arduradunak.

Martitzenean garapen jasangarriari buruzko hitzaldia emango dute Monterronen, 19:00etan.

Eguaztenean, bestalde, Arrasate jasangarriaren aldeko apustua hitzaldia egongo da osoko bilkuren aretoan, hori ere, 19:00etatik aurrera izango da.

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARITXABAILETA

Industrialdea F-0-4
Telefono: 791844
Faxa: 792941

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Ur biltegia egiten hasi dira



Astelehenean hasi ziren lanak egiten.

Lau hilabete geroago, baina hasi dira egiten Mondragoeko ur-zikinak batzeko biltegia. Hain justu, Deba eta Aramaio erreketara botatzen diren ur-zikinak batuko ditu kolektoreak. Takoloko biribila eta Fagor

Elektratresnak lantegiaren arteko erreka zatiaren ondoan ari dira langileak pasa den astelehenetik. Kolektorea jartzeko lurra prestatzen dabilta; datoren astean zuloa egiten hasiko dira. Edozelan ere, hasie-

rako asmoen arabera, 16 hilabetez jardungo dute lanean. 1.600 milioi pezetako inbertsioa egingo du Eusko Jaurlaritzak lan horretan.

GERO, ARAZTEGIA


Herriko ur-zikinak Epele-
ra, Roneo ingurura, eramango dira hodi baten bidez. Han Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiko ur-zikinak ere batuko dira. Izan ere, Epelen bailarako ur-zikin horiek garbitzeko araztegi bat eraikitzeko asmoa du Espainiako gobernuak. Oraingoz dakiguna da, Epelen ipiniko dela eta 4.000 milioi pezeta kostako dela. Baita, lanok 2002. urtean adjudikatuko direla ere; hortaz, oraindik apurtxo bat itxaron beharko dugu.

Saria Herri Eskolei

Mondragoeko San Andres, Erguin eta Musakolako herri eskolek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailearen sari bat jaso dute, bailarako gainontzeko herri eskolekin batera. Lautik zortzi urte bitarteko umeei ingelesa erakusteko erabilitako moduagatik saritu dituzte herri eskolak.

Hain zuzen ere, goizean gelara sartu eta egunero galdera berberak egiten zaizkie umeei: 'Gaur zein eguraldi egiten du?', 'zer egingo dugu?', eta antzekoak. Kontua da egunero galdera berberak errepikatzea, eta horrela, umeei, apurka-apurka, ingelesa barneratu eta ikasten dute.

Emandako saria 800.000 pezetakoa da.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



WING-TSUNEKOAK, AFARIAN

Hona hemen Wing-Tsun ikastaroko lagunak. Bigarren urtez dabilta arte martzial estilo hori ikasten eta lantzen. Aikidokoekin batera erakustaldia egin ondoren izan zuten afarian atera zuten argazkia.



INDIGENEN JAKINTZAZ BERBETAN

Hego Amerikako bost herrialdetan hezkuntzaren inguruko esperientzien berri eman zigun joan den astean Alfredo Lozanok. Ekuadorreko herri indigenen unibertsitateko eta kultura indigenen institutu zientifikoko arduraduna da Alfredo.

01-02 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- **Epea:** otsailaren 5etik otsailaren 16ra
- **Non:** UMEZAINTZAN
(San Andres, 8 / San Josepe auzoa)
Tel.: 943 77 20 25 /ext.:301
- **Ordutegia matrikulatzeko:**
14:30-18:30 arte inprimakiak jaso eta entregatzeko.
Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin nahi izanez gero telefonoz aurretik abisatu.



ARRASATEKO UDALA

Hezkuntza Saila ■

ASTEBURU HANDIA AL-ANDALUSEN

Al-Andalus kultura elkarteak asteburu handia izan du oraingoan. Elkartearen 11. urteurrena ospatu zuten. Besteak beste, Corazon de Encina elkartearen emanaldia izan zuten, horixe izan zen-eta aurtengo gonbidatu berezia.



GUNEAK:

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

Matrikula zabalik Otsailaren Setik -16ra

LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte) DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)

- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen



Arizmendi
ikastola

BULEGO INFORMATIBOAK

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
Ferixalekua	Arizmendi	Jose Arana-Almen
15:00-19:00	17:00-19:00	14:00-18:00
943 77 20 25	943 79 31 32	943 71 44 86

IZENAK

Ikerne Altube

Mondragoetar hau da Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziako kudeatzaile berria. Arrikrutze-ko kobazuloen proiektua da agentziak duen egitas-morik garrantzitsuena. Dena dela, Ikernek badu eskarmenturik gerentzia lanetan, lan hori bera egin zuen-eta ARKOn orain urte batzuk.



ZORAGARRIA!


ETA ORAIN, MUSAKOLAN



Musakolan egin du geldialdia Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltariak. Hala ere, auzo hartako umeak ez ezik, herriko guztiak daude gonbidatuta. Otsaileko zapatu guztietan, Musakolan aurkituko dute ludoteka.

Halaxe laburtu zuten euren esperientzia Eugenio Etxebestek eta Juan Bautista Agirrek. Verdiren mendeurrena dela eta, abesten aritu ziren Berlinen. Argazkian, Donostiako Orfeoiko zuzendariarekin eta Mondragoeko bi entzulerekin agertzen dira. Zorionak!

AUPA SAN BALEIXOAK!



Eta asteburuez ari garenez, ez dute makala izan, ez, Meatzerreka auzoan. San Baleixoak ospatu dituzte han. Urtero bezala, arrakasta handia izan dute umeendako jolasek eta txapelketek, zaldiko-maldikoek eta, zelan ez, tradizio bihurtu den mus txapelketak.

Santa Ageda jaia Gesalibarren

Santa Ageda martiria berezi-berezia da Gesalibarko auzotarrendako, berarekin batera ekartzen ditu-eta auzoko jaiak. Asteburua dela aprobetxatuz, egubakoitzean hasi eta astelehenean amaituko dira jaiak. Eta jakina, auzo bateko jaiak diren bakoitzean egiten dugunez, oraingo honetan ere aprobetxatu egingo dugu Gesalibarren gainean zertxobait gehiago jakiteko. Horretarako, Anton Garatekin egon gara berbetan. Gesalibardarra izateaz gain, Mondragoen ere ezaguna da, herriko alkatorde izan zen-eta 1958tik 1962ra bitarte.

ZELAN DAGO?

Udalaren laguntzaz, baserribideak konpontzen dabilta Gesalibarren. "Orain, brea botatzen dabilta. Edozelan ere, egin duten zatia oso ondo geratu da, dotore. Egitekoko falta den beste zatian, ostera, urak hartzeko bideak egiten dabilta". Behin hori eginda, auzoko plazan hasi eta goien dagoen baserriainoko bideak konponduta geratuko dira. Lanok udalaren eta zenbait baserriaren artean ordainduko dira.

"Bestela, gauza handirik ez dago. Auzoko saneamenduak egin ziren eta ondo geratu dira. Hori bai, gauza txar bat badago: lehen, Aramaiotik Mondragoera pasatzen zen autobusa hemen geratzen zen, eta orain, ez. Hortaz, auzotarrok ez dugu Mondragoera zelan joan ez zelan etorri ere. Eta jakinda hemen ez dagoela denda bakar bat



Aita Juan Pedro.

bera ere, edozein gauzatarako herrira joan behar izaten gara eta askok ez dute zelan joan, ez dute-eta automobilik. Nik neuk 81 urte ditut eta hortxe ibiltzen naiz, egunero automobila hartu eta bueltaka".

Astean bizpahiru buelta emango dituen zerbitzu bat eskatzen dute auzotarrek. Berdin zaie autobusa izan edo taxiak ekartzen badira ere, baina Mondragoera joan-etorriren bat egiteko garraioa behar

dute. "Nahiz eta auzotarrik edo hiruk erabili, ezin gaituzte horrela utzi. Gauzak egin behar direnean, egin egin behar dira; horretarako ordaintzen ditugu zergak, ezta? "

AUZOKO DOHATSUA

Auzokide batekin daude bereziki harro Gesalibarren: Juan Pedro de San Antoniorekin, hain zuzen ere. Martiria izan ondoren, dohatsu izendatu zuten fraide hau.

Aita Juan Pedro Gesalibarren jaio zen, Sakristauaren kalean, 1890. urtean. Jose Maria Bengoa Aranguren zen jaiotze izena. 1908. urtean fraide izateko botoak egin zituen Aita Pasiotarren kongregazioan, eta Aita Juan Pedro izena hartu zuen. 20 urterekin Mexikora joan zen, ikastera. Gero, 1916. urtean, Estatu Batuetara, eta han ikasketak jarraitu zituen. Handik Kubara bidali zuten eta gero, Ciudad Realgo Daimiel herrira.

Han zegoela, gerra piztu zen eta Daimielgo kongregazionistak erail zituzten. Aita Juan Pedrok eta kongregazioko beste sei lagunek ihes egin zuten. Gesalibardarra ostatu baten ezkutatu zen uztailean, beste fraide batekin batera. Baina, hilabete batzuk geroago, milizianoak bila joan eta fusilatu egin zituzten. 1936. urteko irailaren 25a zen.

Daimielgo kongregazioan esaten zenez, martiria eta dohatsua izan aurretik, Aita Juan Pedro santua zen.

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

- 19:00** etxafleroak.
- 20:30** auzo afaria Jentil Olan. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña. Gero, dantzaldia, Txinparta taldearekin.
- ZAPATUA**
- 11:00** gaztetxoendako jolasak, Txatxilipurdirekin; gero, buruhandiak.
- 12:00** hildako auzotarren aldeko meza.
- 14:30** auzoko abesbatzaren

- irteera, Santa Agedaren omenez.
- 22:30** dantzaldia, Txinparta taldearekin.
- DOMEKA**
- 12:00** meza nagusia, Gesalibar eta Garagartzako koroarekin.
- 16:30** mus txapelketa, Jentil Olan.
- ASTELEHENA**
- 18:30** meza. Santa Agedaren omenez, auzoko koroak abestuko du.

Beilatokia eta errausket-

Urte bukaerarako, gauzak espero bezala badoaz, bi zerbitzu berri izango ditugu Mondragoen: beilatokia eta errausketa-labea, hain zuzen ere. Zorionez, gutxitan erabiltzen diren baliabide horietakoak dira, baina ondo beha-

rezkoak, beilatokia, batez ere.

Heriotzaren bat gertatzen denean, hamakatxo eginbehar izaten ditugu, eta horietako bat, hildakoaren gorpua non eduki lur eman arte.

Mondragoen, eta Debagoiena osotan oro har, oraindik orain ez dago beilatokirik.

IRTENBIDE DESEGOKIAK

Mondragoen, horrelakoetan, bi irtenbide daude, baina biek ere badute bideragarritasun faltaren bat: bata, eskualdeko ospitaleko beilatokia erabiltzea; baina, hori ez dago edozeinen esku, heriotza ospitalean bertan izan denean bakarrik erabil daiteke eta. Beste irtenbidea da mondragoetarrek-eta debagoiendarrek-erabiltzen dutena: gorpua hemendik kanpoko beilatoki hurbi-

lenera eramatea, hau da, Gasteizera edo Eibarrera.

Gasteizen Vitoria-Gasteiz eta Lauzurika hileta-enpresak daude, eta bakoitzak ditu beilatokia eta errausketa-labea. Gutxi gorabehera, 42.600 pezeta kostatzen da beilatokia erabiltzea. Gorpua erretzea erabakiz gero, ordaindu beharrekoa bikoiztu egiten da. Egonaldia kobratzen da, nahiz eta gorpua ordu gutxian edo egun pare baten han egon.

PREZIOAK

Horri guztiorri garraioa gehitu behar zaio, eta horrek garestitzen du aurrekontua erabiltzailea Mondragoeko familia

bat bada. Garraio zerbitzua ere hileta-enpresak eskaintzen du. 26.000 pezetakoa da gutxieneko tarifa. Jakina, egindako kilometroen arabera ordaintzen da. Gasteizko beilatokiaren arduradunen esanetan, Mondragoeko familia askok erabiltzen dute hango zerbitzua: herrian izaten diren hildakoen %80 hara eramaten dira. Bistan dago, hortaz, 24.000 biztanleko herri batek, eta zer esanik ez 60.000 biztanleko ibar edo bailara batek, horrelako zerbitzu baten premia duela. Prezioak –proiektuaren beste hainbat ezaugarri bezala– ez daude zehaztuta, baina haien antzekoak izan-



Errausketa-labea eraikin hauetan jarriko dute.

go dira. Hala ere, esan barik doa garraio kostuak ezereztu egingo direla, edo oso baxuak izango direla Mondragoetik

Herrian izaten diren hildakoen %80a Gasteizko beilatokietara eramaten dira

-labea Mondragoen



kanpokoendako.

Iaz, Arrasaten beilatokia eta errausketa-labea egiteko proiektua gorpuzten hasi zen udalean, eta oraindik ezaugarri asko finkatzeke daude: zein enpresak egingo dituen, prezioak, kudeaketa... Hala ere, gauza batzuk ia segurutzat jo daitezke: adibidez, San Kristobalgo hilerrian kokatuko direla bi zerbitzuak, nahiz eta hasieran Mugarritteko eremua ere aipatu zen kokapen moduan. Beilatokia hilerri-

ko sarreraren ezkerreko aldeko eraikinean ipiniko dute, orain bulegoak dauden lekuan, hain zuzen ere; errausketa-labea, aldiz, hezurtegia dagoen txokoan. Beilatokia egiteko ez dute aurrekontua zehaztu, baina 3.500.000 pezetako partida onartu dute; errausketa-labearendako, 10.000.000 inguru.

EZAUGARRIAK

Beilatokiak 48 metro koadro izango ditu. Udaleko Zerbitzu

Saileko arduradunak, Jose Maria Urizarrek, honela dio: «Leku horretan bi beilatoki egokitu nahi ditugu. Akaso, erdian pertsiana bat izango dute; hortaz, bi gelak bat egin daitezke. Gorpua edukitzeko hozkailuak egongo dira, kristalezko leiho batekin. Gainera, egongela ere egingo da. Ondoan, kapera prestatuko genuke». Orain, udal arduradunak Gasteizko hileta-enpresekin harremanetan dabiltza, haien erdua jarraitu guran.

Otsailaren 8an izango dute hurrengo elkarrizketa; udalaren asmoa da hilabete horretan bertan egitea lehiaketarako deialdi publikoa, bi obrak lehenbailehen adjudikatzeko.

ZERBITZUA, EZ NEGOZIOA

Bi zerbitzuotako ezaugarri asko aurreko urtean erabaki baziren ere, baldintza bat, behintzat, garbi zeukaten arduradunek hasieratik: zerbitzua gisan eskaini behar direla, harik eta prezio merkeenean, eta ez etekina ateratzeko negozio bezala. Hortaz, dirua irabazteko asmorik ez duen erakunde batek hartu beharko du ardura. Udalak San Felipe Apostol kofradian pentsatu zuen, eta harremanetan hasi ziren proiektua aurrera ateratzeko. Hala ere, udal arduradunek garbi utzi nahi dute kontu hori: «Beilatokiaren eta labearen kudeaketa lehiaketa publikora aterako dute. Hala ere, dirua irabazteko helbururik ez duten erakundeak bakarrik onartuko ditugu. Hortaz, San Felipe Apostolek aukera ugari ditu; baina, ikusi egin behar».

Azkenean, hala egiten bada, kofradiako bazkideek merkeago izango dituzte bi zerbitzu berriak. Baina, udal zerbitzuak izango diren aldetik, alde nabarmenik ez da egongo bazkide ez direnendako, kontuan hartuta, gainera, Debagoieneko beste herritarrek ere erruz erabiliko dituztela.

SAN FELIPEREN AUKERAK

Badirudi Mondragoeko kofradia izango dela beilatokiaren eta errausketa-labearen ardu-

raduna. Kontua da, urtebete-tik hona eurek jardun dutela egitasmoaren atzean, udalarekin batera. Joan den domekan batzar orokorra egin zuten bazkideek, eta egitamu horiek izan zituzten gai nagusi. Jesus Maria Arizmendiarieta eta Jose Luis Untzueta lehendakari eta diruzain izango dira beste bi urtean, nahiz eta, berez, besteren batek hartu behar izango zukeen ardura hori. Arizmendiarietak dienez, «beilatokiaren eta errausketa-labearen proiektuak betetzen dihardugun bitartean, kofradiak erabaki du lehendakari bezala jarraituko dudala». Horrekin batera, Iñaki Elortza, Jesus Telleria eta Jesus Agirrebeña izendatu zituzten bokal. ■

Leire Kortabarria
Lorea Agiriano

SAN FELIPE APOSTOLEK 102 URTE



Datorren apirilean 102 urte beteko ditu San Felipe Apostol kofradiak, eta osasun ezin hobea duela argi geratu zen joan den domekako batzarrean. Jesus Maria Arizmendiarieta lehendakaria pozik agertu zen iazko datu ekonomikoak ikusita: iaz 5.500.000 pezetako soberakinak izan zituen elkarteak.

Onuradunei dagokienez, 2000. urtea

11.931 bazkiderekin itxi zuen kofradiak, aurrekoan baino 174 gehiago. Horietatik gehienak Mondragoekoak dira, baina badira baita Euskal Herriko eta kanpoko bazkideak ere. Aurtengo erronkarik handiena beilatokia eta errausketa-labea aurrera eramatea izango dute, baldin eta, dirudien bezala, elkarte horrek lortzen badu kudeaketa.

Telebista **ugari** dago mundu zabalean,

baina bailarakoa **bakarra.**

Goitb
Goiena Telebista



**IRUDI
SPORT**

SPINNIN-A HELDU DA.
LEHENAK GARA.

MAKINAK GERTU DAUDE,
ZEU BAKARRIK FALTA ZARA.

UARKAPE, 2-BEHEA. ARRASATE. TEL.: 943 77 20 87. ORDUTEGIA: 07:30 - 22:00

Euskara ikastaroak ERDU AEK-n

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK
EGA

izena emateko azken eguna:
otsailaren 9an



æk

Laguntzailea:



ARRASATEKO UDALA

Garibai, 14-3 • Tel.: 943 77 03 69

Nora zoazte, mutilak!



Zaldibarko zelaia txiki
gelditu eta hara nora joan
iziren jokatzera beste
hauek!

MAKANAKI, KALERA

Hamaika jardunaldi gelditzen dira Zaldibarko areto futbol txapelketa bukatzeko. Baina, dagoeneko, bi taldek txapelketari agur esan diote: orain hilabete, The Pippol taldea; eta aurreko astebukaeran, Makanaki. Berandu iritsi ziren partida jokatzera, eta hori ez dute onartzen antolatzaileek. Hori dela eta, A multzoan beste talde bat gutxiago arituko da.

SEKULAKO PARTIDA

Joan den jardunaldian partida ikusgarria jokatu zuten Betraye eta AL Ion taldeek. Bi taldeak bikain aritu ziren

eta markagailuan parekatuta ibili ziren partida guztian. Amaierara ere horrela iritsi ziren, bederatzina berdindu zuten-eta. Ez da, ez, jardunaldioro horrelakorik gertatzen, baina antolatzaileek adierazi digutenez, partida polita izan ei zen.

EPAILEEI OHARRA, BERRIRO

Epaileekin bueltaka gatoz aste honetan ere. Ez dugu guk esaten euren lana hala-hola egin dutenik, antolatzaileek baikik. Ez ei dituzte partiden emaitzak behar bezala hartzen, eta gero, taldeetako jokalarien arte-

an gaizki ulertzeak egoten dira. Bestalde, erabakiak hartzerakoan ere fabore egiten ei die batzuei. Mutilak! Serioak izan gaitezten! Lagun artean jokatzan ari garela!

Ba, hori. Adi, epaileok! Zuen lana ahal duzuen ondoren egin ezazue, nahiz eta ez atsegin. Kontua da guztion esku hartzea!

Horren haritik, antolatzaileak bigarren aldirako epaile bila hasi dira. Jakin badakizue talde guztien betebehara dela epaile lanetan aritzea, baina bigarren aldira ez da horrela izango. Hortaz, epaile izan gura duzuenok astelehenero

gaztetxetik pasa zaitezke, arratsaldeko 9etatik aurrera, zuen proposamenarekin. Antolatzaileek eskertuko dizuete.

BARKAMEN ESKE

Eta antolatzaileen partetik, zera esan beharra daukagu: barkatu. Barkatu, izaten diren arazoengatik! Horixe jartzeko eskatu digute. Dirudienez, hainbat gaizki ulertze izan dira azkenengo jardunaldietan antolatzaileek ez dituztelako gauzak behar bezala egin. Hortaz, badakizue, zintzoak izateko eskatzen dizuete eurek, baina eurekin ere pazientzia hartu!



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



Gesalibar auzoa • Tel.: 943 79 10 35



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

Lasagabaster 1 - Makanaki 0
 Kanpanzar Har. 4 - Serengeti 7
 Bikain aka. 2 - IK Azkena 8
 Txapime Dribling 6 - Keya 4
 Katxiporra 6 - IKP 7
 AC Surkos 6 - Goma 2 6
 Txeyenex 1 - Aurrera Bolie 2
 Betrayer 9 - AL Ion 9

B taldea

Rayo Aldeano 7 - KJ Basati 4
 Kamasutra 4 - AKTA 4
 Txotx 0 - Usotz Potroak 2
 New Makai 4 - Sass T 3
 Iriztu 7 - Abocajarro 2
 Iratis STS 4 - AT Celaya 5
 EPEH 1 - Pepelus.Inserso.com 4

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	8	7	1	0	41	13	15
Lasagabaster	8	6	1	1	44	23	13
Komando Alpargat	8	6	1	1	38	25	13
IKP	8	6	0	2	34	32	12
Serengeti	8	5	2	1	31	23	12
YK Azkena	8	5	2	1	25	19	12
Txapime Dribling	8	5	1	2	25	19	11
AC Surkos	8	5	1	2	35	32	11
Bikain Akademia	8	4	2	2	36	24	10
Goma 2	8	3	3	2	40	31	9
Katxiporra	8	4	0	4	35	42	8
Makanaki	8	2	1	5	15	18	5
Leya	8	1	2	5	17	25	4
Betrayer	8	1	1	6	36	47	3
Kanp. Harrobia	8	1	1	6	36	47	3
Txeyenex	8	1	0	7	16	38	2
AL Ion	8	0	1	7	26	65	1
The Pippol	8	0	0	8	7	19	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etixerat Taberna	8	7	1	0	60	18	15
Iriztu	8	6	1	1	30	15	13
Pep.Inserso.com	8	6	0	2	36	23	12
AT Celaya	7	6	0	1	34	21	12
Rayo Aldeano	8	4	1	3	51	33	9
Irati STS	8	4	1	3	37	25	9
Kamasutra8	8	4	1	3	36	27	9
Usotz Potroak	7	4	1	2	32	10	9
KJ Basati	8	4	0	4	39	27	8
Fraguel Gol	7	4	0	3	29	28	8
AKTA	8	3	1	4	33	29	7
Full Duplex	7	3	1	3	25	27	7
EPEH	7	3	0	4	19	27	6
DKB Kobate	8	7	2	1	4	22	5
New Makai	7	2	0	5	13	41	4
Alai Gozokiak	6	1	1	4	17	37	3
Txotx	8	1	1	6	11	42	3
Abocajarro	7	1	0	6	22	46	2
Sass T	8	0	1	7	13	50	1

ORDU ALDAKETA

Zaldibarko partiden ordutegia berriz ere aldatu dute antolatzailleek. Goizeko 11etan hasiko dira partidak zapatuetan Zaldibarren.

Hemendik aurrera, hortaz, ordu bat gehiago izango dute lozaleek ohean egoteko. Gaizki ere ez!

EMAITZA BATZUK

Betrayer eta AL Ion taldeek bederatzina berdindu zutela badakizue, baina ez zen berdinketa bakarria izan 8. jardunaldian. AC Surkos eta Goma 2 taldeek seina berdindu zuten, Kamasutrak eta AKTAK launa berdindu zuten eta Etixerat Tabernak eta Ful Duplex tal-

deek, ostera, hiruna gol sartu zioten elkarri. Berdinketen asteburua izan ote zen zortzigarrena?

Asteburuan AC Surkos taldeak atsedean hartuko du eta beste taldeei dagokienez, ikusi egin behar zer gertatzen den.

Dena dela, adi partiden orduarekin.

Hurrengo partidak /9. jardunaldia

Otsailak 2, zapatua

Zaldibar

11:00	DKB Kobate - AT Celaya	(Full Duplex)
12:00	EPEH - Full Duplex	(AT Celaya)
13:00	Kanpanzar Har. - Komando Alpar.	(EPEH)
14:00	Irati STS - Abokajarro	(Kanpanzar Har.)
15:00	Bikain Akademia - IKP	(Abokajarro)
16:00	Txeyenex - Goma 2	(IKP)
17:00	Betrayer - Leya	(Txeyenex)
18:00	Etixerat Tab. - Sass T	(Leya)
19:00	Aurrera Bolie - YK Azkena	(Sass T)

Atsedena: KJ Basati, Dribling eta AC Surkos.

Iturripe A

14:50	Serengeti - Katxiporra	(AL Ion)
16:00	Lasagabaster - AL Ion	(Katxiporra)

Iturripe B

14:50	Rayo Aldeano - Katxiporra	(AL Ion)
16:00	New Makai - Iriztu	(AKTA)


Otsailak 3, domeka

Zaldibar

10:50	Fraguel gol - Pepelus.inserso.com	Kamasutra
12:00	Kamasutra - Usotz Potroak	(Faguel Gol)
13:00	Txotx - Alai Gozokiak	(Usotz Potroak)

ERRUGBIA


Berriro irabazi



Partida polita jokatu zuen zapatuan Arrasateko errugbi talde nagusiak. Irabazi egin zuen berriro ere, oraingoan Athletico Bera-Beraren aurka. Azken emaitza: 0-60. Aurreko astean Gasteizen irabazteak konfidantzaz bete zituen mondragoetarrak. Hasieratik, oso serio eutsi zioten norgehiagokari eta partida guztian mondragoetarrak izan ziren nagusi. Atsedendira 0-31 emaitzarekin iritsi ziren, eta bigarren zatian beste hainbeste egin zuten. Zapatuan Garagzaran arituko dira.

ESKUBALOIA

Animorik ez zaie falta



Eskubaloia taldeko kadeteek partida ona jokatu zuten zapatuan etxean. 24-17 irabazi zuten Donibaneren aurka.


Kontraerasoan hutsuneak nabaritu zitzaizkien arren, kanpokoek baino hobeto jokatu zuten.

Azken minutuetan Xabier Altzelairen eta Arkaitz Masien arteko jokaldi polita ikusteko aukera izan zuten Iturripera joan zirenek. Eurei esker iritsi zen mondragoetarren

azken gola. Defentsa eta kontraerasoa hobetu eta hasierako urduritasunak neurtu. Hori guztia lortuz gero, azkenaurreko tokitik aterako dira mondragoetarrak. Animorik, behintzat, ez zaie falta.

XAKEA

Lehenengoaren bila




San Andres A xake taldeak 3'5-0'5 irabazi zuen joan den asteburuan. Bi partida gelditzen dira liga amaitzeko eta mondragoetarrak bigarren tokian daude.

Urnieta dute aurretik. Eta Urnietaren aurka, hain zuzen, galdu zuen joan den asteburuan San Andres B taldeak.

ATLETISMOA

Emaitza bikainak



Pista estaliko Gipuzkoako txapelketan hiru domina eskuratu zituzten pasa den astean Arrasate Kirolak Atletiko Taldekoek. Pertika jauzian Jonathan Perezek, Realeko kirolari mondragoetarrak, urrea eskuratu zuen. 4'35 cm-ko jauzia egin zuen, eta, horrenbestez, marka pertsonala hobetu du. 200 metroetan Unai

Sarabiak zilarrezko domina irabazi zuen (22"50). Martin Davilak eskuratu zuen mondragoetarren hirugarren domina. 400 metroetan 52"06-ko denbora egin zuen Martinek.

Bestalde, Donostia-Lasarte nazioarteko lasterketan Markel Blanco alebinak esku hartu zuen. Ezin hobeto ibili zen 12 urteko mutikoa: bigarren izan zen 91 lasterkariren artean.

Seniorretan, 10.000 metro-eko lasterketan, Javier Mentxaka 54. izan zen, 71 lasterkariren artean.

Baina, asteburuan Idiazabalgo krosa ere jokatu zen eta, bereziki, Iñaki Telleriak egitiko marka aipatu beharra dago, hirugarren izan zen eta. Bosgarren Imanol Esperezate izan zen eta Jon Ander Amado bederatzigarren. Xabi Pavon hamaikagarren helmugaratu zen eta Iñaki Etxagibel hamaugarren izan zen.

Emakumezkoetan 54 lagun aritu ziren M^a Jose Gil lasterkarti beterranoa laugarren izan zen.

SASKIBALOIA

Asteburu beltza



Ez zen, ez, joan den asteburua batere pozgarria izan Kenci Arrasatekoendako. Partida jokatu zuten talde guztiek galdu egin zuten. Nagusienek Errioxan

jokatu zuten, eta taldeko ordezkariak ziotenez, «bigarren aldian sekula jokatu duten partidarik txarrena izan zen». 72-58 Logroñoren aurka.

Irabazten hasi ziren Kencikoak, baina errioxarek ez zuten batere arazorik izan aurre hartzeko; lehenengo laurdenaren azken minutuetan 6-0 partziala eskuratu zuten.

Beste taldeek ere ez zuten emaitza onik lortu. 23 urte azpikoek, esaterako, galdu egin zuten Ordizian, hiru puntu-rengatik.

Zapatuan Iturripen jokatu dute, 18:00etan, Gasteizko Campus Alava taldearen aurka.

PILOTA

Udaberri txapelketa Uarkapen



Udaberri txapelketa partida jokatu da egubakoitzean Uarkapen, 19:30ean.

Kadeteen bigarren mailako partida izango da: Azpeitiko Ilunpe taldearen aurka jokatu dute Jimenez II.ak eta Arroiabek. Lehen mailako kadeteek eta nagusiek atsedena izango dute.

Bestalde, Uribarren eta Jimenez I.a gazteek Añorgan jokatu dute zapatuan. Euskal Ligako partida izango da hori.

Jokatzeok

ESKUBALOIA

Iturripen

• Seniorrak:

Arrasate Almen - Tolosa, domekan, 12:00etan

• Gazteak:

Arrasate - Urnietako, zapatua, 16:00etan

FUTBOLA

• Lehen erregionala:

Mondra - Gazteak, domekan, 16:00etan.

• Bigarren gazteak:

Arrasate - Antzuola, zapatuan, 10:30ean.

SASKIBALOIA

Zapatuan, iturripen

• Seniorrak:

Kenci Arrasate - Camp. Alava, 18:00etan

Zapatuan, musakolan

• 23 urte azpikoak:

Kenci Arrasate - Irungo Beti G., 16:00etan

• Juniorrak:

Kenci Arrasate - Lacor, 16:00

• Kadete mutilak:

Kenci Arrasate - Easo B, 12:15ean

Mondragoeko I. xake txapelketa

San Andres xake taldeak txapelketa antolatuta du otsailaren 9tik apirilaren 6ra bitartean. Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko sailkapenatarako baliagarria izango da txapelketa. Lehenengo aldiz jokatzeko da horrelako txapelketa bat herrian. Irabazleak, diru sariatz gain, sailkapen horietarako baliagarriak diren puntuak lortuko ditu.



BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO XAKELARIAK

San Andres xake taldeko lau jokalariz gain, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste herri batzuelako jokalariek ibiliko dira lehiatzen. Tartean izango

dira Bizkaiko xakelaririk onena, Carlos Nava, eta baita Gipuzkoako txapelduna ere, Jesus M^a Agirretxe errenteriarra, hain zuzen ere. Eure-

kin batera arituko dira Cristobal Linares gernikarra, Jerardo Fernandez bilbotarra, eta Eduardo Sanz eta Luis Olai-zola donostiarrak.

Mondragoeko taldetik Josu Tornayk, Txema Hermandok, Luis Ortegak eta Isidro Ruizez jokatu dute txapelketa.

55.000 pezetako saria jasoko du txapeldunak, baina horretarako, otsailean hasi eta apirilera arte iraungo duen txapelketa jokatu beharko du. Guztira, 200.000 pezeta banatuko dira saritan.

Txapelketa egubakoitzero jokatu da udaletxe osoko bilkuren aretoan, 19:00etatik 23:00etara. Ligaxka jokatuko dute; hau da, txapelketa itxia izango da: hamar jokalariek elkarren aurka jokatu beharko dute.

Aukea sariak 2000 erabaki dira

Behin-behineko erabakia den arren, AUKEAko zuzendaritza kontseiluak dagoeneko erabaki du zeintzuek irabazi duten Aukea Saria 2000.

Aurten, aipamen berezian saria Arrasate Kirol Proiektuari emango diote. Hamar urte betetzen ditu aurten, eta, hori dela eta, orain arte egingandako lanari emango diote saria. AKPrekin batera, Luis Lopez "Bonba" futbolari ohia eta Amalio Galan boxeolari ohia hautagai izan ziren. Gogoratu duzuen bezala, "Bonba"k Alaves, Malaga eta Mondra taldeetan jokatu zuen. Entrenatzailea ere izan zen.



Amalio Galan 70 eta 80ko hamarkadetan boxeolari aritu zen.

Kirolari onenaren banakako saria Ander Landaluz



motozale beterranoari emango diote. Aurten, Euskal Herriko enduro txapelketa irabazi zuen beterranoen mailan, baina urte askoan trialeko txapel-

pelduna ere izan zen Landaluz. Sari horretarako beste hautagaiak Jonathan Perez pertika jautzilaria eta Oscar Gavilan pisu jaurtitzaila izan ziren. Hala ere, bi kirolari hauek gazteak dira oraindik, eta, seguru asko, emaitza onak lortzeko bidean daude.

Talde onenaren saria iaz mailaz igo zen Kenci Arrasate saskibaloitzaileari emango diote. Lander Errastik zuzentzen duen taldeak aurten ere aukeratu ditu mailaz igozko. Mondragoeko saskibaloitzaileekin batera, hautagaia zen Santamarinako Bolozaileen Peña. Beste baten izango da.

Sagardotegia Txotx egin!

ITURRIETA

Average auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

AKPko begiraleek diotena

BEGOÑA DELGADO, 23 urte: Heziketa fisikoko irakasle ikasketak egin zituen, eta baita TAFYD ere.

CRISTINA GARATE, 20 urte: SHEE-ko 3. mailako ikaslea eta aerobikeko monitorea.



Zenbat urtean ibili zarete begirale?

B.: Lehenengo urtea da AKPn, baina Zornotzan bost urte egin ditut atletismoko begirale, eta iaz multikirola ematen ibili nintzen Murgian eta Gasteizen.

C.: Aerobikeko begirale bezala aritu naiz.

AKPren proiektuaren berri bazenuten?

B.: Bai, iaz jakin nuen AKP zer den.

C.: Aurten izan da Arrasate Kirol Proiektuan lehenengo aldia. Horko koordinatzaile baten bidez izan nuen proiektuaren berri. Ez dut eza-gutzen horrelako beste ekimenik.

Zer deritzezue AKPk egiten duen lanari eta metodoari?

B.: Lana ondo dago. Umeek kirol guztietan ibiltzeko aukera daukate; horrela, euren gustuko kirola aukeratzeko unean erraztasunak izango

dituzte.

C.: AKPren bidez, Mondragoeko umeek hainbat kirol praktikatzeko aukera dute, eta baita eskolaz kanpo kirola egiteko aukera ere. AKP lan handia egiten dabil kirola aurreratu ateratzeko.

Azaldu zuen eginbeharra AKPn eta zenbat umerekin ibiltzen zareten.

B.: Bueno, neu astean hiru egunean etortzen naiz Gasteiztik. Horietako egun bakoitzean bi orduan lan egiten dut

hiru talderekin: kirol jolasetako bat eta aurrekiroletako bi. Zapatu goizetan ere partidetara etortzen naiz, lau bat orduz, gutxi gorabehera.

C.: Astelehenetik eguenera bitartean aritzen naiz hemen. Lau talderen ardura daukat: bi talde kirol jolasetakoak dira (LHko 1. eta 2. mailak) eta beste biak, multikiroletakoak (5. eta 6. mailak). Egunero bi ordu ditut. Zapatuetan ere ekingiz egoten dira, batez ere, partidak; egun horretan 3-4 ordu izaten dira, gutxi gorabehera.

Zer azpimarratuko zenukete Mondragoeko eskolaz kanpoko zerbitzuaz?

B.: Kirol aukera zabala da; umeek oso ondo pasatzen dute eta elkar ezagutzeko modua dute.

C.: Eskolaz kanpoko zerbitzu horri esker, hainbat kirol praktikatzeko gain, eta batez ere taldean eginiko ekintza bat denez, umeek ondo pasatzeko modua da, gaitasun ezberdinak lantzeko eta, zelan ez, pixka bat izerditzeko ere!

Asteburuko hitzorduak

Otsailak 3, zapatua

Otsailak 4, domeka

AURREKIROLA (BENJAMINAK)

SASKIBALOIA

Jurripen

- 09:30 SFX D - SFX C
SFX E - SFX U
- 10:15 SFX St - S. Viator B
La Merced B - S. Viator A
- 11:00 Aramaio - La Merced A
- 11:30 Musakola - Erguin
- 12:00 SFX A - SFX B

MULTIKIROLA

ARETO FUTBOLA

Gazteluondon

NESKAK

- 10:30 Erguin - SFX A

MUTILAK

- 09:45 Aramaio - SFX U
- 11:15 Musakola - SFX A 1
- 12:00 Erguin - SFX A 2
- 12:45 SFX B - La Merced
- Musakolan
- 11:15 S. Viator B - S. Viator A

ALEBINAK

7KO FUTBOLA

Otsailak 4, domeka

Atxabalpen

- 09:00 SFX - Joma
- 09:00 Erguin-Sanviator - Txiki Onak
- 10:00 Indo Mirvat - Canas Esteban

RAMON BAREA (TXALO ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA)

«Harridura, interesa eta jakin-mina piztu gura dugu»

Datorren domekan antzerki saioa izango da Amaia antzokian. Txalo antzerki taldeak *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* lana eskainiko digu. Hain izenburu deigarria duen antzezlan horretan ardura hirukoitza du Ramon Barea bizkaitarrak, zuzendaria, egokitzailea eta antzezlea da-eta.

— Zer kontatzen digu antzezlan honek?


— Oliver Sacks neurologoak idatzitako lan baten oinarrituta dago. Sacks-ek bizi izandako mediku-historien zatiak antzesten dira. Arazo neurologikoak dira guztiak. Hainbat pertzepzio ez dituzten gaixoen kasuak ikusten dira, medikuarekin elkarriketa moduan irudikatuta. Horrela, buruaren funtzionamenduaren ikuspuntu orokorra islatzen da.

— Zaila da mediku-historiak modu erakargarrian eskaintzea?

— Kasu honetan, ez. Sacksek medikuntzaren giza alderdia defendatzen zuen: ez bakarrik diagnosis, baizik eta gaixo bakoitzak zelan bizi duen bere egoera ere. Hortaz, neurri handian, giza historiak dira, eta horien bitartez, bizipenaren muineraino iristen gara.

— Zeintzuk izan dira alde onenak?

— Taldekide guztiondako zailena, baina baita erakargarriena ere, gaien murgiltzea izan da, buruko txokoetan, alegia. Ez da antzerki tradizionala, ez du hasiera, korapilo eta amaieran oinarritutako eskemarik, eta horrek zailagotu egiten zuen lana. Gainera, buruaren inguruko ikerketek zelan egin duten aurrera ikus dezakegu: lehen, gaitz



guztiak 'zorokeria' ren zakuan sartzen ziren. Orain, aldiz, gaitz desberdinak daudela ikus dezakegu. Bestalde, aktore moduan lan handia eskatzen du: keinuen eta jokabidearen bidez buruko arazoak adierazi behar dituzu.

— Hortaz, zer edo zer ikas dezakegu antzezlan honekin.

— Bai. Baina, publikoari zer edo zer irakatsi baino gehiago, harridura, interesa eta jakin-mina piztu gura dugu jendearengan. Izan ere, mundu misteriotsua agerraraziko dugu jendearen aurrean, buruko gaixotasunena, hain zuzen ere; arlo honetaz askorik ez dakigu, eta gutxitan mahairatzen da, gainera. Ikusleak imajinatzen ez dituen kontuak aurkituko ditu. Izan ere, gure zentzuez konturatzen ez garen modu berean, gaixo horiek ez dira euren gutxitasunez konturatzen.

«Mundu misteriotsua agerraraziko dugu jendearen aurrean: buruko gaixotasunak»

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Zumarragako eta Urretxu-ko hizkuntzaren eta ondarearen ikerketa egiteko laguntza, Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartearen eskutik. Epea: otsailak 28.

• Frantziar, Alemaniar edo Erresuma Batuan graduatu osteko edo doktorego osteko ikasketak egiteko laguntzak, lizentziadunendako. La Caixaren eskutik. Epea: martxoak 30, maiatzak 15 eta ekainak 29.

■ IKASTAROAK

• Gazteria Sailaren eskutik, hastapen eta sakontze mailako alboka ikastaroa. Zapatu goizetan, otsailaren 3an hasi eta San Juanak arte, Arrasate Musikalen. Matrikula: 3.000 Pta / 2.000 Pta ikasle eta langabeendako. Izen-ematea Gazte Bulegoan.

• Hastapen eta sakontze mailako txalaparta ikastaroa, astelehen eta egubakoitzetan, 20:00etatik aurrera. Otsailaren 12tik maiatzaren 11ra, Musakolako gazte txokoa. Matrikula: 3.000 Pta / 2.000 Pta ikasle eta langabeendako. Izen-ematea Gazte Bulegoan.

■ LANA

• Gorlizgo Udalerako liburutegi laguntzailea. Epea: otsailak 5.

• Arrigorriagako Udalak idazkaritza, ongizate eta kultura sailerako administrari laguntzaileak behar ditu. Epea: otsailak 5.

• San Adriango Udalak kirol koordinatzailea behar du. Epea: otsailak 16.

■ JARDUNALDIAK

• Garapen jasangarriaren bila, Mondragoeko Ingurumen Sailak antolatuta. Otsailaren 6 eta 7an, Monterronen eta Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Santa Agedaren omenez, kantua eta jaiak



Santa Ageda eguna dela-eta, ospakizunak izango ditugu asteburuan herrian. Garagartzako eta Gesalibarko abesbatzak eskean irtengo dira, eta baita Santa Ageda Korue

tradizionala ere. Gesalibarren, gainera, auzoko jaiak izango dira.

Irtenaldia astelehenera atzeratzeko proposamen batzuk izan ziren, baina otsai-

laren 4ko ohiturari eutsiko diote Santa Agedako koruek. Mondragoe osoan ibiliko dira kantariak eta poltseroak, goizetik gauera arte. Bildutako dirua herriko behartsuei lagun-

tzeko emango dute. Iaz 1.200.000 pezetatik gora jaso zituzten.

GARAGARTZA ETA GESALIBAR

Egun bat lehenago egingo dute kantaldia garagartzarrek, Txarrihanka Peñak antolatuta. Edozein adineko gizon eta emakumeak irtengo dira. 15:30ean hasiko dute ibilaldia, Garagartzako plazan, eta auzoko baserri guztiak bisitatu dituzte.

Eta bai zapatuan, bai domekan, baita astelehenean ere, jaiak egingo dute Gesalibarren. Jakina, Siziliako deunaren omenezko kantaldiak ere egingo dituzte zapatuan, 14:30ean, eta astelehenean, 18:30ean.

Txinako zinema berriaren eredu

Zine-klub saioan, Zhan Yang txinatarren *La Duchak* (1999) filma emango dute. Donostiako, Torontoko eta Rotterdameko zinema jaialdietan sari bana jaso zuen *La Duchak*.

BAINUETXEA

Bainuetxe publikoa duen familia baten bizipenak kontatuko zaizkigu, eta, bide batez, Txinako gizartearen eta ohituren berri jasotzen dugu.

Film atsegin horrek Txinako zinemagintza izaten ari den berritze prozesua adibidetzen du.

Luzaroan egon den, eta oraindik diharduen, zentsurak film historiko eta politikoak ondu ditu, baina *La Duchak* bezalako pelikulek bestelako istorio arruntagoak kontatu nahi dituzte.

Jose Zubiaurre Toki-Ederren



Jose Zubiaurre margolari bilbotarraren erakusketa San Andres auzoko Toki-Eder kafetegian dago ikusgai. Otsailaren bukaera arte erongo da erakusketa.

Trudiak eta jai giroa ditugai kutunen. Edozein izanik aukeratutako gaia, biziki gozatzen du Zubiaurrek lanarekin: «Nik margolan hauek egiten gozatu dudana adina gozatzea ikusleek; horixe espero dut», dio Josek.

LEHIAKIDEAK LAGUN

Bere kabuz ikasi zuen margotzen Jose Zubiaurrek, baina bestelako irakaslerik ere izan du: aire zabaleko lehiaketetan aurkitutako jendea. Beste partaideen aholku eta kritikek margotzeko modua hobetzen lagundu diotela esaten du. Zarautz, Eibar, Beasain, Bilbo, eta Iruñeko lehiaketak, besteak beste, irabazi ditu Jose Zubiaurrek.

Zer eta zenbat irakurri genuen?

Liburu, aldizkari, bideo eta beste hainbat dokumenturen artean, 22.677 dokumentu mailegatu ziren iaz liburutegitik.

MAILEGATUENAK

Liburuei dagokienez, gehienak literaturazkoak ziren, eta mailegatuena ondokoak izan ziren: helduen aldetik, euskaraz Juan Mari Irigoienen *Babilonia* izan zen gustukoena, eta gaztelaniaz, Arturo Perez-Reverteren *La Tabla de Flan-des* hizlaura. Gazteek, euskaraz, *Kutxidazu bidea*, *Ixabel* aukeratu zuten, Joxean Sagastizabalena, eta gaztelaniaz, *El diario de una adolescente*, Anna Frank-ena. Umeek, aldiz, *Buruko hura* nork egin zion jakin nahi zuen *satortxo*a, euskaraz, eta *Guía para la vida*, gaztelaniaz, mailegatu zituzten gehienbat.

Garai bateko musika gogora ekarriz

Binilordua Eguaztenero 20:00etan



XXI. mendean gauden honetan, CD eta DVDaren garaian alegia, baztertuta geratu dira aspaldiko disko beltz handiak. Teknologia berriek soinu kalitate hobea eskaintzen dutela ez dugu zalantzan jarriko; hala ere, erromantiko asko bada gure artean, eta horiek gustura entzuten dute disko handiek duten soinu esanguratsua. Hortaz, betiko musikazaleak hartu ditugu gogoan, eguazteneroko BINILORDUA irratsaioa prestatzen hasteko. Mikel Alberdi, mikrofonoan; Aitor Oskoz, teknikari lanetan; bien lanak uztartuz, musika garaian hegan egiteko prestatzen gaituzte.

HIPPYAK, HEAVYAK, ROCKEROAK, GUATEKEAK...

Biniloan grabatuta dagoen musika da gure protagonista; hortaz, ez diogu muzin egiten inongo estilori. Gure irratsaiotik pasatu dira Barricada, Simon & Garfunkel, Cecilia, Los Suaves, Joan Baez, Formula V, Bon Jovi, Thin Lizzy eta beste hamaika, eta hala izaten jarraituko du.

TRATUA

Baztertuta ditzun biniloek gurean badute lekurik. Eman astindu bat zuen bildumari eta gurera bidali aukeratutako diskoak. Gainera, eskatu beldur barik, akaso gurean izango dugu-eta aspalditik bila zabiltzan abesti edo taldea. Horrela izanez gero, gustura utziko genizuke disko hori denboraldi baterako. Interesaturik bazaude, jo Arrasate Irratira.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Otsailak 9 (22:00): **Species**

Otsailak 10 (22:00): **Babes in Toyland + Doss**

2 sarrera egun bakoitzerako zozketatutako ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo delitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebepun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua

Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Santa Agedak zale asko dituela-eta, aste honetan beste talde bat atera dugu fotozaharren atalean. Bedoñako taldea da, hain justu, 1979 edo 1980. urtean; argazkia Bedoñako eliza ondo-

an dago aterata. Argazkiko protagonistak hauexek dira, ezkerretik eskumara: Fernando Cristobal, Agustin Ibarluzea "Txispas", Jose Andres Arregi "Sandro", Francisco Gonzalez "Kiko", Javier Zubizarreta, Juan Mari Oregi, Julio

Iriondo, Angel Larrañaga, Luis Maidagan, Angel Ezkurra "Galarra", Jose Ramon Bolinaga "Txori", eta makurtuta dagoena, Juan Egidazu "Kurri".

Bedoñako taldea oraindik ere irteten da abestera, diru

eske. Ondoren, batutako dirua Caritasi ematen diote. Iaz, esaterako, 1.215.007 pezeta batu zituzten.

*Argazkia eta berriemailea:
Jose Mari Menika*



TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
Araba etorbidea, 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Zergatik eskola publikoa?

Euskalduna delako eta herriko ohiturak bultzatzen dituelako.



Miren Argi Oria
ikasle ohia

Arrasateko Herri Eskola, gure eskola, bizirik dagoelako.



Paki, Arantza, Nerea eta Danel.

Ainara Iraola
ikasle ohia

Errespetoa, aniztasuna, elkartasuna, hezkidetz... Horrelako baloreak sakonki lantzen dituelako.




Olatz Alzua
irakaslea

Ikasle eta irakasle arteko giroa jatorra delako.

Begoña Uriguen
irakaslea

Errekurtso ugari ditugulako eta hauek guztiak ikasleen heziketan erabiltzen ditugulako.



Instalazio oso egokiak dituelako eta erdialdean bizi garenondako doako garraioa daukalako.

Xabier Salaberri
gurasoa



Alfonso VIII. 1
Tel.: 943 79 20 69



Udala bidea, z/g
Tel.: 943 79 77 74

www.euskalnet.net/erguineskola



Elkano, 10
Tel.: 943 79 04 49



Santa Teresa, 25 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 38

Etxebarrí auzoa, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 79 00



baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak, era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxufea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikiengatik inoiz egin den gauzarik handiena.



5 URTEKO GARANTIA
www.nissan-almeratino.com

1.8-KO MOTOREA
COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 DI MOTOREA
COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA
AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU